

1. PERPAUSA

a) BANATOR

b) LIBURU HORI EKARTZEKO

c) ZUK EMANDAKO DIRUAREKIN ETXEA
EROSIKO DUGU

Hiru adibide hauetatik, bi perpausak dira eta bestea ez. Zein EZ da?

b) aukera ez litzateke perpausa izango.

Zergatik esango zenuke EZ dela PERPAUSA? Zein da PERPAUSA izateko bete behar den baldintza?


PERPAUSA esanahi osoa duen unitatea da. Perpausak aditza derrigorrezkoa du zentzu osoa izateko eta, aldi berean, aditz bakar batek osa dezake perpausa. Zergatik?

Aditzek, hitz bakar batean informazio guztia eman diezaguketelako.


Adibidez: BANATOR




Beraz...



Perpausa, esanahi osoa duen unitatea da.



Zentzua izateko, aditza eduki behar du.



Aditzak, berak bakarrik, perpausa osa dezake.

Galderarik?

2. GALDEGAIA

Zein da perpaus hauen arteko aldea?

1. Jonek laguna autoz kontzertura **eraman du**.
2. Jonek **eraman du** laguna autoz kontzertura.
3. Jonek laguna **eraman du** autoz kontzertura.
4. Jonek laguna autoz **eraman du** kontzertura.

Formari dagokionez?

Denek elementu berberak dituzte, aldatzen dena hauen kokapena da.

Eta esanahi bera al dute denek?

Esanahia aldatzen da. Aditzaren aurrean dagoen elementuak emango digu eskatu dugun informazio berria; hau da:


2. Nork eraman du laguna autoz kontzertura?
3. Nor eraman du Jonek autoz kontzertura?
4. Nola eraman du Jonek laguna kontzertura?

Euskaraz, zein esango zenukete dela orden normala, hau da, EZ MARKATUA?


SUBJEKTUA + OBJEKTUAK + ADITZA (1. perpausa)



Beraz...



Euskaraz, perpaus barneko elementuen ordenak hau izan beharko luke: Subjektua + Osagarriak + Aditza



Goiko egitura honi, ORDENA EZ-MARKATUA deritzo.



Perpaus baneko elementuen ordena aldatzean, ADITZAREN aurrean kokatzen denari, GALDEGAIA izena emango diogu.



Kasu honetan, Subjektua + Osagarriak + Aditza ordena mantentzen ez bada, ordena markatua dela esango dugu.

Galderarik?

3. PERPAUS MOTAK

Zein da perpaus hauen arteko aldea?

1. Bihar eguraldi ona egingo du.
2. Bihar eguraldi ona egingo duela entzun dut.

FORMARI DAGOKIONEZ...

Lehenengoan perpaus bakarra dago. Bigarrenean, ordea, bi.

Zein izango da PERPAUS BAKUNA eta zein PERPAUS ELKARTUA?

Lehenengoa BAKUNA da, ADITZ BAKARRA duelako. Bigarrena aldiz, ELKARTUA, aditz bat baino gehiago dituelako

BAKUNAK, ESANAHIARI DAGOKIONEZ, 5 MULTZOTAN BANA DITZAKEGU:

Adierazpen perpausak (baiezkoak/ezezkoak)

Galde perpausak (zati galdera/bai-ez motakoak/aukera galderak)

Harridura perpausak

Aginte perpausak:



Beraz...



PERPAUS BAKUNEK aditz bakarra dute.



PERPAUS ELKARTUEK bi aditz edo gehiago.



PERPAUS BAKUNAK lau motatakoak izan daitezke: ADIERAZPEN PERPAUSAK, GALDE PERPAUSAK, AGINTE PERPAUSAK eta HARRIDURA PERPAUSAK

Galderarik?